

## Javi Perez soraluzetarra errealeko idazkaritza teknikoan

Egilea plaentxia.com  
2009-06-25 14:37

Bere "esperientzia eta bilakaera profesionala" dela eta bi denboraldirako kontratua sinatu du Javi Perezek.

Hasiera batean harrobian lan egingo zuela uste zen arren, bere ibilbide onari esker soraluzetarra Lorenen agindupean ariko da gutxienez, bi denboraldiz. Hala ere, formazio taldeetan ere lagunduko du, bereziki jubenetan. Talde aldaketarekin ilusio handia erakutsi du, realean lan egitea "ohorea" izateaz gain "erantzukizun handia" ere badela gehituz.

Javi Perez, 1997an Eibarko behe-mailletako taldeekin hasi zen. Handik bi urtera, idazkari tekniko lanetan hasi eta apurka-apurka estatu mailan bidea egiten joan zen. Eibarren izan zen garaian, berak erakarri zituen Joseba LLorente, Kike Mateo, Almunia edo zeditutako Silva (Valenciatik) eta Iraizoz (Espanyol). Iaz Alavesen aritu zen.

Argazkia: Diario Vasco